

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

BALIABIDE EKONOMIKO URRIAK DITUZTEN FAMILIEN ONGIZATEAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko ekainaren 19an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Aurreko legegintzaldian behin eta berriro entzun eta irakurri genuen, gaur egungo Gizarte-ekintzako delegatuaren eskutik, “umeez gosea pasatzen zutela Altzan” eta Donostiako Udalak neurriak hartu behar zituela. 2015ean, delegatuak *El Diario Vasco* egunkarian egindako elkarrizketan honako hau aipatzen zuen:

En el acuerdo programático para formar gobierno se habla de los niños que pasan hambre en Altza...

-Es un tema que nos preocupa. Tanto que la primera llamada que hice en cuanto me nombraron concejala fue precisamente a las asociaciones de vecinos del barrio, con las que ya me he reunido. En Junta de Gobierno les ha concedido una ayuda de 8.000 euros, pero seguimos trabajando en la posibilidad de hacer algo permanente vía convenio para dar respuesta a esta situación.

Geroztik, Udal Gobernuak diru laguntza bat ematen dio urtero Osteguna elkarteari, *Lo mio es tuyo* izeneko proiektua aurrera ateratzeko; beraien hitzetan, umeez gosea pasa ez dezaten.

Proiektu horretan parte hartu duten familia gehienek laguntza-ekonomikoak jasotzen dituzte (DSBE edo RGI delakoa; larrialdi diru laguntzak, etab.) eta udal gizarte zerbitzuetan artatuak dira.

Hain zuzen ere, azkeneko egunetan asko hitz egin da EAJ alderdiko Beatriz Artolazabal sailburuak DSBEan egin nahi dituen murrizketa sozialen inguruan. Artolazabal andereak aipatutako murrizketen artean honako hauek daude:

- DSBEaren kopuru ekonomikoa kalkulaterakoan, lanbide arteko gutzieneko soldatetik desbinkulatzeari (orain arte DSBE lanbide arteko gutzieneko soldataren bidez kalkulatu da, 18/2008 legearen 20. artikuluan aipatzen den bezala).
- Etxebizitzako DSBE bakarra jasotzea (orain bi jasotzeko aukera dago, kontuan izanda DSBE jasotzen duten onuradun gehienek pisua konpartitzen dutela).

Murrizketa horiek justifikatzeko Artolazabal andereak dio “600 euro kobratzeak bizitza duin bat bermatzen duela” eta gaur egungo kopuruak altuegiak direla.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Batzordeetan delegatuari honen inguruan galdetu genion, baina ez zuen Udal Gobernuaren iritzia eman. Izan ere, zinegotzi-ordezkariak aurreko legegintzaldian zegoen babes sistemarekin (AGI, DSBE, GLLak...) umeez gosea pasatzen zutela uste bazuen, aurten prestazioetan murrizketak egiten badira, familien egoera okertuko dela aurreikus daiteke, bai Altzan bai hiriko beste auzoetan.

Datu aipagarria da, baita ere, 2016ko gizarte zerbitzuen memoriaren arabera, DSBEren eskaerak igo direla (4.894 eskaeratik, 4.970 eskaeratarara).

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari balorazio bat egin dezala *Lo mio es tuyo* programaren inguruan eta Udalbatza osatzen dugun taldeekin partekatu dezala.
2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari hausnartzen ari den DSBEren lege erreformaren arabera, azter dezala nolako eragina izango lukeen donostiarrengan.

Donostian, 2017ko ekainaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia